

# Bero-beroan

## Euskara-japoniera hiztegia sarean

**GOIHATA.COM** web gunean dago hiztegia. Itzulpengintza, interpretaritza eta Japoniari buruzko aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten web gunea da. 20.000 sarreratik gora ditu eta japonieraz hiru alfabetoan begira daitezke hitzak; kanji alfabetoan (idazkera tipikoa), kana alfabeto silabikoan eta romanji alfabetoan (japonieraz ahoskatzen dena alfabeto erromanikoan idatzia). Hitzak kontsultatzeaz gain, norberak sartu ere egin ditzake.

## 12-17 urte artekoentzat egonaldiak Bernedon

**ARABAKO IKASTOLEN ELKARTEAK** Hala Bedi irratiarekin lankidetzan antolatu ditu uztaileko egonaldiak. Uda giroan gazteak Arabara erakartzeko ikus-entzunezkoak hartu dituzte tresnatzat antolatzaileek. Dagoene-

ko gazte askok eman du izena eta egonaldiok iragartzeko bideoa jarria dute Youtuben.

Udan, film labur bat grabatuko dute, Gasteizko Hala Bedi irratian irratia egingo dute eta blogak egiten ikasiko dute. Gazteak Bernedora joateko irrikaz daude, sustatu.com-eko albistearen erantzunetan irakurri ahal izango dugunez.

## Informatikari Euskaldunen Bilkura

**MAIATZAREN 10EAN** egingo dute Informatikari Euskaldunen VI. Bilkura, Miramongo Teknologi Elkartegian, Donostian. IEB07 Udako Euskal Unibertsitateak antolatu du eta aurten gai nagusia web 2.0 izango da.

## Nafarroako Irratiak

**NAFARROAKO** irrati euskaldunen sarea sortu berri da. Nafarroa Garaian aritzen diren sei irrati elkartu dira: Xorroxin, Beleixe, Esan Erran,

Karrape, Aralar eta Euskalerrria Irratia. Elkarlanean egiteko honako asmoak dituzte: irrati teknologiak eguneratu eta digitalizatzea, programazio trukaketa eta online emititzea. Web gune bateratua hauxe da: [www.nafarroakoirratiak.com](http://www.nafarroakoirratiak.com)

## Irakurri, Gozatu eta Oparitu

**IZEN HORI DUEN** egitasmoa jarri du abian Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak. Hainbat euskara elkarte, udal liburutegi eta liburu denden laguntza izango du. Erabiltzaileek 100 liburu izango dituzte udal liburutegiko apalategian aukeratzeko, horietatik 90 herri guztietan berdinak izango dira, Patxi Zubizarretak aukeratutakoak, eta beste 10ak herri bakoitzean aukeratu dira. Irakurritako liburua uzterakoan, irakurleak norbaiti oparitzeko deskontu txartela jasotzeko aukera izango du. Egitasmoa hasi berria da eta hiru hilabete iraungo du.

## Mahai tresnak eta Busturialdea

Gernikan kokaleku nagusia duen mahai tresnen sektoreak krisi gogorra jasan du azken hogeita hamar urteotan. 1.600 langile ziren garai batean eta orain Jypsa enpresak (Dalia mahai tresnak) 95 langile ditu eta Maltak 90. Ildurgo enpresa duela urte batzuk itxi zen. Bizkaiko Foru Aldundiak 19 milioi euro jarriko ditu eta plan berria jarriko dute abian. Asmoa Jypsak eta Maltak bat egin eta 185 langileetatik 150 batzea da. Sektore honentzako irtenbideak bilatzea ona da, kontuan izanda Busturialdean duela kokagune nagusia eta bestela ere, ekonomia eta industria jota baitaude eskualde horretan. Armagintza sektorea Busturialdekoa da baita ere; Astra enpresa zuen buru, baina desagertu zen enpresa hura. Arrantza eta kontserba sektoreak ere badira eskualdean, baina arazoak dituzte. Aipatu ditugun sektore horietan milaka lanpostu galdu

dira. Azken asteotan hain justu, hainbat ekintza izan da Busturialdean eskualdeak biziraun dezan aldarrikatuz.

Dena dela, Foru Aldundiaren operazio hori gardena izatea bermatu beharko litzateke. Ahaldu nagusiak zera esan du: "Hemen ez dago pelotazo urbanistikorik eta Jypsaengandik eskuraturako lurrak publikoak izango dira". Lur horietan etxebizitzak eraiki ditzake Foru Aldundiak, etxebizitza plana baitu. Intenzio horiek egi bihurtu daitezkeen eta balizko "pelotazo"rik gerta ez dadin, herritarrek etengabe kontrolatu eta zelatatu beharko dute. Eta bukatzeko galdera bat: mahai tresnen sektorea eta enpresak kudeatu dituztenek ez dute inolako erantzukizunik? Eta erantzukizunik baldin badituzte konturik hartu al zaie?

Juan Mari Arregi

## BAHEA

[Katixa Agirrek Diario de Noticiasen esanak:](#)

"Lehenengo lana atera berri duen idazlea naiz, eta azken sei aste hauetan hedabideen arreta izugarria jaso dut. Bi-hiru elkarriketa astero: egoera imajinaezina liburua gazteleraz idatzi izan banu. Medio horiek, baina, euskaltzaleak dira, edo euskal-kuota bat bete behar dute; egoera artifiziale sortzen dute".

[Eneko Olasagastik 7Kn esanak:](#)

"[Jaun eta Jabe] Orduan onartu baldin baziguten, euskaraz zelako izan zen. Bestela ez zuten utziko. Euskaraz egiteak asko murrizten zuen kontua, eta horrela PP eta PSOEek ez zekiten kasik bazenik ere. Jaun eta Jabe-k gauza asko esateko askatasuna eman zigun. Sailaren eduki politikoa oso argia zen eta horixe zen, hain justu, interesantea egiten zuena. Garai hartan inork ez zuen umore politikorik egiten, inon".

## Zapaterori jarritako erronka

### HAUTESKUNDEETARAKO

ezker abertzaleko zerrenden legezotasunaren zurrunbiloa bizi da egunotan betebetean. Zalantzarik handiena da ea ANVko zerrendek Alderdien Legearen langa pasatzea lortzen duten ala ez. Aspalditik da ezaguna ezker abertzaleak zerrenda bikoitzaren jokoari helduko ziola, horretarako sigla batzuk edo besteak erabiliz. Zerrenda 'kutsatu' eta zerrenda 'garbien' joko alegia. Ez

zen ezaguna ANVko zerrendetan ere tokian tokiko Batasuneko jende ezaguna joango zela.

Interpretazio desberdinak izan ditzake Batasunaren jokamolde honek, baina nagusienak azken hilabete luzeetan errenka dabilen bake prozesuari begira jartzen gaitu. Duela urtebete nekez irudika zitekeen Batasuna edo bere ordezkoren bat ez zela hauteskudeetan izango. Barajasekoa eta gero oso gaitza ikusten zen Batasuna edo ordezko zuzen bat hauteskudeetan egon ahal izatea, baina hala ere oso argi zegoen ezker abertzaleko alderdiak hauteskudeetan izateko moldea termometro oso garrantzitsua izango zela. Eta heldu da ordua. Jadanik



L. J. / ARGAZKI PRESS

Maiatzaren 16an aztertuko du Espainiako Auzitegi Gorenak ASB legezko alderdia den ala ez.

badakigu ASB ez dela izango hauteskudeetan, Espainiako Auzitegi Gorenak maiatzaren 16an aztertuko baitu legezkoa den ala ez. Jakina, orain ez aurkezteko aukerak bere garrantzia du, baina Auzitegi Gorenak legezkoa dela erabakiko balu 2008ko Espainiako hauteskunde orokorretara aurkeztea ahalbideratuko luke. Ez da eszenatoki posibleena orain "de facto" zerrendak atzera bota eta gero Gorenak legezko egitea, baina ezin da erabat baztertu.

Erabaki horren aurretik, hala ere, garrantzitsuagoa izango da ANVko zerrendei buruz erabakitzen dena, hor ere ezker abertzaleak desafioa luzatu baitio Jose Luis Rodriguez

Zapaterori: onartzen badira prozesuaren irakurketa baidakorrak egin ahal izango da eta alderantziz bada, prozesua oso kolokan dagoela interpretatu behar da. Gara-ri emandako azken elkarrizketan uneri emandako garrantziaz ere jardun zuen ETak eta ezker abertzaleak hauteskudeetan parte hartzerik izan ezean erantzuteko aukera aktiba zezakeela iradoki ere bai.

### FRANÇOIS BAYROUREN

botoemai-leek zer egingo duten 6an, hor da Frantziako lehendakaritzarako hauteskudeen gakoa. Bayrouk berak publikoki ez du ez Ségolène Royal ez Nicolas Sarkozyren aldeko botorik eskatu, baina bai adierazi du argi duela nori ez dion botorik emango: denek interpretatu dute hori Sarkozy dela. Besteak beste, *Soud-Ouest-eko* web gunean Bayrouk martxoaren 16an utzitako esaldia argitaratu eman du: "Ezin dira aurkitu Sarkozy eta ni baino pertsona desberdinagoak". Bertan azaltzen du Sarkozyk 2004an Chiracen aurkako aliantza proposatu ziola eta nola eta zergatik eman zion berak ezetza.

gure!  
arteak!  
euskaraz

